

FISIOTERAPIAKO LANPOSTUAREN PROFILA

Eskakizunak

Gutxieneko esperientzia: ez da beharrezkoa

Gutxieneko eskakizunak:

- Fisioterapiako Gradua/Diplomatura. Gerontologiako, Neuroerrehabilitazioko, Ortogeriatrico... prestakuntza osagarria
- Fisioterapeuten Elkargo Ofizialeko txartela
- Adinekoen egoitzetan zein eguneko zentroetan eta errehabilitazioko kliniketan izandako esperientzia balioetsiko da

Azalpena

Babesten Taldean, FISIOTERAPIA bila gabiltza, egoitzetan eta eguneko zentroetan ditugun profesionalen diziplina anitzeko taldea osatzeko.

Honako hauxe izango dute xede, medikuaren eta laguntzako arduradunaren menpean:

- Erabiltzaileei fisioterapiako kalitateko zerbitzua eskaintzea, narriadura funtzionala prebenitzeko eta egoera fisikoari eusteko edo hobetzeko. Horrez gain, zenbait patologia tratatzea, diziplinarteko lanaren esparruan garatutako jarduketa fisioterapikoaren bidez.

Honako hauexek izango dira haien eginkizunak:

Zentroko antolakuntzari dagokionez:

- Erabiltzaileen egoera fisikoaren balioespen funtzionala egitea.
- Jardueren programazioa egitea (gimnastika geriatrikoa, masajeak, jarreraren berreziketa, mugikortasunaren estimulazioa...), erabiltzaileen autonomia sustatzeko asmoz.
- Errehabilitazioko teknikak ezartzea, erabiltzaileen patologien arabera.
- Erabiltzaileen historia klinikoa eguneratuta edukitzea talde medikoaren laguntzaz.
- Diziplina anitzeko taldearen bileretan parte hartzea.
- Erabiltzaileei eta senideei zainketei eta programako faktore zehatzei buruzko beharrezko informazioa edota prestakuntza eskaintzea.
- BAPren prestaketan parte hartzea.
- Erabiltzaileentzako laguntza tekniko egokiak balioestea eta aukeratzea.
- Erabiltzaileen jarrera-higienarako jarraibideak eta noraezko ibilerarako jarraibideak zehaztea laguntzaileekin.

- Jarraibideen jarraipenerako behar diren erregistroak egitea eta kontrolatzea.

Artatutako erabiltzaileei dagokienez:

- Erabiltzaileekin honako arlo hauetako programak garatzea: errehabilitazioa, fisioterapia, gimnastika eta mobilizazioak.
- Erabiltzaileek erortzeko duten arriskua balioestea.
- Erabiltzaileen mugikortasuna balioestea.
- Fisioterapiako tratamenduak eta errehabilitaziorako teknikak agintzea, erabiltzaileen independentzia fisikoari eusteko eta hobetzeko.
- Erabiltzaileen balioespen funtzionala egitea. Balioespen integrala eta errehabilitazio osoaren historia egitea.
- Mendekoen lesio ohikoenak prebenitzea eta errehabilitatzea (aldakaren haustura, artrosia, hemiplegiak, dementziak, parkinsona...).
- Senideei etengabe ematea egoiliarren egoera funtzionalaren, gertatutako gorabeheren eta aurreikusitako jarduketan berri (telefonoz nahiz zuzenean).

Zentroko langileei dagokienez:

- Diziplinarteko taldearekin lan egitea. Horretarako, taldearen zerbitzu espezializatuen osagarri, fisioterapiako lanpostuko berezko zereginak garatzea, kasuan kasuko zerbitzuak emateko.

Eskaintzen duguna

- Adinekoentzako laguntzaren sektoreko lana Bizkaian liderra den erakundearen (gu ezagutzeko, Babesten Taldearen profila ikusi Linkedinen).
- Gure zentro guztiak Bizkaiko Foru Aldundiarekin daude itunduta.
- **Bizkaian ditugun zentroetan (Bilbo, Sestao, Muskiz, Basauri, Bermeo...).**

Gurekin lan egin nahi baduzu:

Bidali Zure CVa